

MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAKO

ELKARTEA:

LAB AECC 2018 DEIALDIA

Helburua:

Deialdiaren helburua gorabideko taldeei laguntzea da haien ikerketa lerroak finkatzeko. Horretarako, gorabideko taldeetat hartzen dira ikerketa lerro aske bat hasi ondoren 5 urte artekoak, haien produkzio zientifikoak eta/edo finantzatutako proiektuek egiaztatuta. 5 urteko epea proiektua esleitzeko unera arte (2018ko ekaina) zenbatuko da.

Proiektuen ezaugarriak:

- Proiektuek orientazio translazionala izan beharko dute, eta oinarrizko ikerketa oinarri sendo bat egon behar da (oinarrizko onkologiatik, translazionaletik azterketa klinikoetara doazen azterketak).
- Ikertaldean arteko lankidetzaren ahalbidetzea da.
- Proiektuek 3 urteko iraupena izango dute.
- Zuzkidura 300.000 euro gordinekoa izango da, 100.000 euro gordin urteko.

Ikertzaile nagusiaren (IN) baldintzak:

- Doktore titulua izatea.
- Lotura UPV/EHUrekin, edo horrelakorik ez, laguntza eskatzen denetik gehienez 6 hileko epean lotura hori izango duela erakusten duen ebidentzia aurkeztea. Kontratuak laguntza eskatzen denetik urtebeteko iraupena izan beharko du gutxienez.
- Gorabideko talde bateko ikertzaile nagusi aske bat dela frogatzea, eta horretarako hau izan beharko du:
 - Artikulu onartu bat (laguntza eskatzeko unean) aurkeztutako proposamenaren ikerketa lerro berean, lehen edo azken sinatzaile gisa, eta/edo
 - Ikerketa lerro berean norgehiagoka deialdi batean emandako ikerketa proiektu bat.

Bateraezintasunen erregimena:

- Laguntza hau ez da bateragarria AECC Fundazio Zientifikoak emandako beste edozein laguntzarekin edo AECCren Batzorde Probintzialen batena, deialdira jotzeko unean indarrean dena (kontsultatu salbuespenak).
- Aurreko deialdietan onuradun izan diren pertsonen eskaera aurkez dezakete deialdi honetan.
- Laguntza hau bateraezina da xede berera bideratutako finantzaketa publiko edo pribatuko beste iturri batekin.
- Deialdi honetan proposamen bakarra aurkez daiteke. Hautagaitza hurrengo deialdietan aurkez daiteke berriz, baldin eta aurkeztutako proiektuan eta/edo ikertaldean aldaketak egin badira.

Proiektuari egoztekoak diren gastuak: Kontsultatu "Proiektuari egoztekoak diren gastuak" dokumentua.

GARRANTZITSUA: Ez da egongo eskariak zuzentzeko aukerarik; hortaz, ezetsi egingo dira ondo bete gabe aurkezten diren edo baldintzak betetzen ez dituzten eskariak.

Eskaerak aurkezteko epea:

2018ko urtarrilaren 17a 15:00etan

2018ko urtarrilaren 9a (barne)	I. eranskina bidaltzea proposatutako langile zerrendarekin. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.es helbidera zuzenduko da, mezuaren gaian "LAB AECC" adierazita.
2018ko urtarrilaren 12a (barne)	Proiektuaren memoria beteta bidaltzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzan Emaitzak dibulgatzeko eta komunikatzeko planaren c) atala bete dadin. Memoria convocatorias.dgi@ehu.es helbidera zuzenduko da, mezuaren gaian "LAB AECC" adierazita.
2018ko urtarrilaren 17a	ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA.

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaerak AECC Fundazio Zientifikoaren web plataformaren bidez aurkeztuko dira: <https://fundacioncientifica.aecc.es/login>

Harremana AECC Fundazio Zientifikoan:

Tel.: 91 310 82 54

e-maila: fundacion.cientifica@aecc.es

Harremana UPV/EHU:

Tel.: 94 601 80 08

e-maila: convocatorias.dgi@ehu.es

Informazio gehiago:

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000846>